


# urtea joan, urtea etorri



barrenet 9. ikastunitatea  
2. maila  
**ikaslearena**

## EGILEAK

Proiektuaren arduraduna:  
Kordinatzaile didaktikoak:

**Juxto Egaña** (HABEko Hizkuntzaren Didaktika arduraduna)  
**Begoña Martinez** (HABEko teknikaria)  
**Sabin Zabala** (HABEko teknikaria)  
**Joseba Ezeiza** (Legazpi 6 Euskaltegia)  
**Mikel Dorronsoro** (HABEko teknikaria)

Partehartzaileak:  
Errealizazio didaktikoa:

© HABE 2001 ISBN: 84-86968-48-8  
Legezko Gordailua: SS-175/02

Inprimaketa: **Gertu Inprimategia. Oñati**

HABE erakundeak eskerrak ematen dizkio *Legazpi 6* euskaltegiari proiektu honetan parte hartzerakoan agertu duten borondateagatik.

Diseinua, maketazioa eta marrazkiak: **Marisa Mantxola**

Gure esker ona ondoren aipatzen direnei, hainbat material eta ideia hartzeko baimena eman digutelako:

*Hamaika Korapilo* eta *Sorginen laratza* saioak. ETB

*Mr. Bean*. ETB

Dinamita. *Tricycle*. ETB

GKE iragarkia. ETB

*Goizean behin*. Euskadi Irratia

*Lauretan babel*. Euskadi Irratia

Siegrist, E. Cómo reconocer a un adicto al consumo. *QUO*, 86. zenb.

Gabonak munduko leku batzuetan. *Consumer aldizkaria*, 12. zenb.

Lege aholkularitza. *Consumer aldizkaria*, 12. zenb.

Ondo pentsatu urtarrileko aldapa... *Consumer aldizkaria*, 13. zenb.

Olentzeroren orria, [www.jalgi.com](http://www.jalgi.com)

# urtea joan, urtea etorri

barrenet 9. ikastunitatea

2. maila

Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua

ikaslearena



## AURKIBIDEA

### 1. Sarrera

- |                               |   |
|-------------------------------|---|
| 1. Lan-egitasmoa              | 6 |
| 2. Ikastunitatearen ibilbidea | 7 |

### 2. Atazak

- |   |    |
|---|----|
| <b>A Ataza:</b> Haurren gozamina          | 9  |
| <b>B Ataza:</b> Opari sinbolikoa          | 14 |
| <b>C Ataza:</b> Kontsumoa Gabonetan       | 18 |
| <b>D Ataza:</b> Merkealdien zurrunbilan   | 22 |
| <b>E Ataza:</b> Kontsumo-adikzioa         | 27 |
| <b>F Ataza:</b> Hainbeste behar ote dugu? | 32 |

### 3. Eranskinak

- |                        |    |
|------------------------|----|
| 1. Autoebaluazio-orria | 34 |
|------------------------|----|

### 4. Material osagarriak

- |   |    |
|---|----|
| <b>C Ataza:</b> Kontsumoa Gabonetan     |    |
| 1. Gabonak munduan                      | 35 |
| <b>D Ataza:</b> Merkealdien zurrunbilan |    |
| 2. Lege-aholkularitza sarean            | 38 |

## 1.

### LAN-EGITASMOA

Jakina denez, kontsumoa da gure gizartearen ikurritza nagusietako bat. Kontsumoa da ekonomiaren funtsezko motorea; aisialdia kontsumoari estuki lotuta dago eta kontsumo-jokabideak kezka-iturri dira azken bolada honetan.

Baina, kontsumoa, batez ere, gertakari soziala da eta hori guztiz ageriko egiten da urtea amaitu eta bestea hasten den aldian; izan ere, garai horretan Gabonak eta merkealdiak kateatzen zaizkigu eta zaila egiten zaigu tentazioa saihestea. Ikastunitate honetan horri buruz jardungo dugu.

Unitatearen hasieran, Gabonez arduratuko gara. Umeei erosten dizkiegun opariez hitz egingo dugu; ikaskideei opari sinboliko bat egingo diegu eta Gabonetan gastuak neurtzeko zenbait ideia bilduko ditugu.

Jarraian, urtearen lehen egunekin, merkealdien zurrunbiloan murgilduko gara. Ikusiko dugu zer den gehienbat erosten duguna merkealdietan, nola egin erosketa zuhurra eta zer egin dezakegun erositako zerbait gustatzen ez zaigunean. Ondoren, bigarren atalean, kontsumoa dela eta sortzen diren arazoez jardungo dugu eta, bide batez, hausnartuko dugu geure kontsumo-jokabide batzuen zentzugabekeriaz.

Gainera, nahi izanez gero, beste aukeren artean, Interneten nabigatu ahal izango dugu gai honen inguruan dauden web-orri eta aldizkari elektronikoko batzuetan barrena.

Hori guztiarekin, aholkuak, gomendioak eta proposamenak egiteko modu eta aukera ezberdinak landuko ditugu.

Proposamena gustuko baduzu, ez zalantzarik izan eta ekin lanari!

## 2. IKASTUNITATEAREN IBILBIDEA

### 1. SARRERA

- Ikastunitatearen eta lan-egitasmoaren aurkezpena (6. or)

### A ATAZA: HAUREN GOZAMENA

- Gabonen inguruan ditugun oroitzapenak alderatu
- Olentzerori eskutitza idatzi umetan egingo genukeen bezala
- Olentzerori zuzendutako hainbat eskari zein adineko umeek egin ote duten asmatu
- Aholku batzuen goiburua idatzi eta ordenatu
- Haur baten eskutitzari erantzun idatziz Olentzeroren izenean (9. or. lib.)

MINTZ/IRAK/ENTZ/IDAZ

### B ATAZA: OPARI SINBOLIKOA

- Oparitu ohi diren gauzak zerrendatu eta sailkatu
- Oparitan gutxiago gastatzeko iradokizunak egin
- Opari bat hautatu ikaskide batentzat eta gabonetako postala idatzi opariarekin batera emateko
- Irratsaio batean ematen dituzten instrukzioak jaso eta horiei jarraituz "airean idatzitako postala" egin (14. or. lib.)

MINTZ/IDAZ/ENTZ

## OSAGARRIAK

### 1. GABONAK MUNDUAN

- Gabonak ospatzeko ditugun ohiturak zerrendatu
- Munduko beste tokietako ohiturei buruz Interneten aurkitutako testu laburrak irakurri
- Gaiari buruzko irratsaioa grabatu
- Alderatu hemengo eta kanpoko ohiturak
- Kanpotik ekarritako ohitura bat deskribatu
  - Kanpoko ohiturak geurera ekartzeari buruz eztabaidatu (35. or. lib.)

IRAK/MINTZ

### C ATAZA: KONTSUMOA GABONETAN

- Hitz gakoak harremanetan jarri
- Definizioak entzun eta hitz gakoak harrapatu
- Gaiarekin lotutako ideien mapa osatu, tertulian esandakoa kontuan hartu
- Azterbide batean oinarrituz, testu laburra idatzi
- Gabonak gozatzeko dekalogoia idatzi (18. or. lib.)

ENTZ/MINTZ/IDAZ

### D ATAZA: MERKEALDIEN ZURRUNBILOAN

- Merkealdietan ohi dugun jokabidea azaldu
- Merkealdietan ondo erosteko aholku zerrenda batean ezabatutako hitzak berreskuratu
- Merkealdiek dituzten arriskuen zerrenda eta horiei aurre egiteko neurrien inguruko zerrenda egin
- "Merkealdietan, kontuz" testua idatzi talde osoaren artean (22. or. lib.)

MINT/IRAK/IDAZ

## OSAGARRIAK

### 2. LEGE-AHOLKULARITZA SAREAN

- Zenbait hitzen definizioa eman eta alderatu aditu batenarekin
- Aditu baten aholkuak jaso zerrenda batean
- Erositakoarekin gustura gelditu ez diren hainbat pertsonaren kasuak aztertu eta aholkuak eman irratsaio batean
- Zuzenbidearekin lotutako hitzen esanahia argitu
- *Consumer* elektronikora jo eta dituen atalak eta eskaintzen dituen zerbitzuak ikusi
- *Consumer* elektronikoan kontsulta bati emandako erantzuna irakurri eta eztabaidatu zein ote den sorburuko arazoa
- Kontsulten ataletik interesgarria iruditu zaien kasuren bat hautatu eta ikaskideekin komentatu (38. or. lib.)

IRAK/ENTZ/MINTZ

### E ATAZA: KONTSUMO-ADIKZIOA

- Kontsumo-adikzioaren fase ezberdinen ezaugarriak bereiztu eta sailkatu
- Kontsumo-adikzioaren ezaugarriak azaltzen dituzten azalpen laburrak eta horien izenburuak lotu
  - Kontsumo-adikzioaren arrazoi ezberdinak zerrendatzen dituzten testuei izenburua jarri eta ordenatu
  - Arazo honen ondorioen zerrenda bat egin eta artikulua jasotzen duenarekin alderatu
    - Gaiari buruzko hiru galderei erantzun ahoz
    - Alderatu erantzunak aditu batenekin
  - Aholku zerrenda batean, hasiera irakurrita pasartearen amaiera idatzi eta alderatu jatorrizkoarekin
  - Norberaren eroste-jokabideak azaldu (27. or. lib.)

IRAK/MINTZ/IDAZ

### F ATAZA: HAINBESTE BEHAR OTE DUGU?

- Zerrendatu zein produktu kontsumitu ohi dugu etxeko hornitzeko eta geure burua eta seme-alabak hezteko; nolako kultur gaiak erosi ohi ditugun eta nolako produktuak erabili ohi ditugun osasuna zaintzeko
- Iragarki bat ikusi eta balorazioak egin geure kontsumo-azturen gainean
- Proposamenak egin bizimodua sostengarriagoa egite aldera
- Zenbait pentsalariren esaldiak komentatu (32. or. lib.)

ENTZ/MINTZ/IDAZ/IRAK

### IKASLEEN AUTOEBALUAZIOA

(34.or. lib.)



## ATAZA: HAURREN GOZAMENA



Gabonetan inork ez bezala gozaten dute haurtxoek. Fantasiaren, ilusioaren garaia da beraientzat, eta, noski, baita opariena ere!

Dezente lehenago hasten dira festak prestatzen; hilabete lehenago ere hasten dira Olentzero eta Erregeak etortzeko falta diren egunak zenbatzen. Askok beren ilusioak pertsonaia miragarri horiei zuzendutako eskutitzean jasoko dituzte.

Helduok, haatik, haien eskutitzak irakurrita, izututa gelditzen gara askotan; Olentzero eta Erregeak aberatsak izango dira, noski; bestela...

1

- Izan ere, ematen du egungo haurrek ia ez direla ezerekin konformatzen. Gogora ekarri zeure haur-garaia eta kontatu nola bizi zenuen zuk zeuk Olentzero edota Erregeen kontu hau.

**Zein dira gabonetan txikitan jasotako opari gogoangarrienak?**

**Gabonetatik zer gustatzen zitzaizun gehien?**

**Nola jakin zenuen nortzuk ziren Erregeak / Olentzero?**

- Alderatu zeuen erantzunak eta bilatu zeuen esperientzien arteko antzekotasunak eta ezberdintasunak. Jaso hurrengo taulan.


**ANTZEKOTASUNAK**

**EZBERDINTASUNAK**

2



- Gogora ekarri txikitan Olentzerori edota Erregeei idatzi zenizkien eskutitzak eta komentatu nolakoak ziren, zer eskatzen zenuen... Etxean baten bat gordeta baduzu, ekarri eta erakutsi ikaskideei. Ondoren, idatzi garai hartan egin zenituenen moduko eskutitz bat.



- Irakurri ondoko eskutitzak. Horietako bakoitza adin ezberdineko haur batek idatzi du. Txikienak 8 urtetik behera ditu; ertainak, 8 eta nagusiak, 12. Eztabaidatu taldean zein haurrek egin ote duen eskutitzetako bakoitza eta arrazoitu erantzuna.


Kaixo Olentzero!

Mariabi naiz, Peru Sanmiguelen ama, uste dut ondo portatu eta ondo saiatu eta gure etxera etortzen zarenean, ondo goxatua izango zara goxokiekin eta janariekin. Gu Beasainen egongo gara, baina Donostiako etxean ere utziko ditugu zapatak.

Peruk idatzi dizu bere eskutitza. Nik gustoko izango nituzke, posible bada, mendiko botak eta jertsea. Juanjok kaleko zapatilen beharrean dago eta uste dugu Peruri ere ondo etorriko zitzaiola kanpoan eta bere lagunen etxera joaten denerako poltsa bat.

Muxu bat denon partetik eta ondo igaro ezazu gun zoragarri hau.

A! Eta Isabelentzako gogoratu zerbait.



Donostian, 2000ko abenduaren 23an

Kaixo Olentzero:

Leire eta Unai gara. Aurten nahiko txintxoak izan gara baina batzutan tontakeriak eta trakeskeriak egin ditugu, zuk jakingo duzun bezala.

Orain jarriko dizugu guk eskatutako gauzen zerrenda:

Aitaxorentzat txamarra eta zapatilak kirola egiteko (zu bezalako tripa du eta)

Amatxorentzat musika, liburua eta sorpresaren bat (zu bezain langilea delako)

Unairentzat patineta, "eskalestri", *game-boy* jokoak, *play-mobil* eta sorpresaren bat (zu bezain triperoa delako)

Leirentzat patineta manillarrekin, *game-boy* makina eta jokoak, zuk nahi duzun jokoren bat denok jolasteko eta sorpresaren bat (Mari Domingi zure andrea bezain marisorgina delako)

Haizearentzat *megasketcherra* (Unai eta zu bezain triperoa delako)

Elirentzat arropa (zure kapoiak zaintzen dituelako)

Edurentzat sorpresa bat edo bi (zu bezain mendizalea delako)

Espero dezagun hori guztia ekartzeko aukera izatea.

Zorionak eta urte berri on

Muxu handi-handi-handi-handia

	ESKUTITZA	ARRAZOIAK
8 urtetik beherako haurra		
8 urteko haurra		
12 urteko haurra		

- Entzun arretaz irratipasarte bat \*: haur batek 2000. urteko gabonetan egindako eskaria. Zenbat urte dituela esango zenuke? Zergatik?
- Alderatu 2000. urteko haurren eskariak eta zeuek egiten zenituztenak. Zertan aldatu dira gauzak? Zein neurritan?

3

- Irakurri umeei jostailuak erosterakoan adituek emandako aholku hauek. Bati izan ezik, denei ezabatu diegu izenburua. Irakurri azalpena eta taldetan jarrita, asmatu bakoitzeko goiburua egoki bat. Ordenatu zerrenda batean eta aurkeztu talde osoari zeuen proposamenak. Alderatu jatorrizkoarekin eta erabaki zeuen proposamenak balekoak diren edo ez.



### Jostailu bat erosterakoan kontuan hartu beharrekoak:

Oso garrantzitsua da haurrentzako jostailuak erosterakoan hainbat gauza kontuan hartzea, haurra hezteko tresna baitira jostailuak. Hauexek dira, besteak beste, erosteko gomendioak:

\_\_\_\_\_ : Askotan jostailuen merkatua gizartearen atzetik doa. Oraindik generoa oso markatua duten jostailuak daude merkatuan. Hala ere, sexurik gabeko jostailuak gero eta gehiago dira, eta, didaktika aldetik ikusita, oso komenigarriak.

\_\_\_\_\_ : Haur txikienetan batez ere, oso garrantzitsua da irudimena landuko duten jostailuak erostea, haurraren garapenari lagun diezaioten.

\_\_\_\_\_ : Haurrek zer nahi duten eta gurasoek haiek zertan ibiltzea nahi duten kontuan hartuta, elementu horien bila joatea da onena. Gabonetan eskainitakoak, baina jostailu egokiak erostea komeni da.

\_\_\_\_\_ : Haurrari jostailuak maiz erosi behar zaizkio. Gabonetan soilik erostea ez da komeni. Urteko egun guztiak ditu haurrak bere garapenerako. Gainera, Gabonetan askotan behar ez diren jostailuak erosten dira.

\_\_\_\_\_ : Haurrak eskatzen duena erosi behar da, baina betiere neurri baten barruan. Erosi ezin bada, edota gurasoei gehiegizkoa iruditzen bazaie, arrazoitu egin behar zaio zergatik ezin den erosi. Hala ere, garrantzitsua da haurrari gustuko duena eskaintzea, gustuko gauzeekin hobeto landuko baititu nahiak, desioak, gustuak...


Adinaren araberakoa: Adinak oso markatzen ditu jostailuak. Hainbeste urte, halako jostailuak. Adinaren arabera, oso jostailu interesgarriak daude. Haurrak duen ulermenaren araberako jostailua erostea oso garrantzitsua da. Irudimena lantzekoak oso kontuan hartzekoak dira.



4

Ikusi dugu zer eskatzen duten hurrek; ikusi dugu, halaber, eskatzen dutena ez dela beraientzat oso egokia edota ez dutela neurririk eskatzeko orduan. Helduon esku dago azken erabakia.

- Taldetxotan jarrita, har ezazu aurreko atalean dituzuen eskaeretako bana. Jarri muga bat egingo duzuen gastuari. Erabaki zertan egingo zenioketen haur horri gustua eta zertan ez.
- Idatzi eskutitz bat Olentzerok sinatua. Bertan azaldu behar duzue zergatik erabaki duzuen opari hori(ek) egitea eta zergatik ez bestelakorik.



# ATAZA: OPARI SINBOLIKOA



Gabonetan umeak ez dira opariak jasotzen dituzten bakarrak. Geuk ere pozik hartzen ditugu lagunek, familiartekoek... eskainitako erregaluak.


Opariak egitea ere tokatzen zaigu eta gehienetan gustura egiten baditugu ere, ondo husten ditugu poltsikoak horren ondorioz.

Izan ere, zenbat alferrikako gauza erosten dugun! Ondo pentsatu gabeko zenbat opari! Zenbatetan damutuko gara egindako gehiegizko gastuaz!

Aurten, ordea, ahalegin berezia egingo dugu opariak ondo aukeratzen eta, aldi berean, gastuak neurtzen.

1

- Taldetxotan bildu eta osatu jarraian duzun opari moten mapa semantikoa, bertara ahalik eta hitz gehienak bilduz. Ea zein taldek lortzen dituen hitz gehien hamar minututan!



- Bete ondoko laukia aurtengo gabonetan aurreikusita duzun gastuaren estimazioa egiteko.

NORI	ZENBAT LAGUN	NOLAKO OPARIA	AURREKONTUA
HAURRAK			
SENIDE HELDUAK			
BESTE FAMILIARTEKOAK			
LAGUNAK			
LANKIDEAK			
BESTE			
		<b>GUZTIRA</b>	

- Taldekideei azaldu zein diren aurreikusita dituzun opariak, zergatik erabaki duzun hori oparitzea, zenbateko gastua aurreikusten duzun, gastu hori handia iruditzen zaizun...
- Trukatu aurrekontuak eta prestatu ikaskideari iradokizun-zerrenda bat aurreikusitakoaren %25-%40 aurreztu dezan.

IRADOKIZUNAK	AURREZKIA
• Eskaintza bereziko jostailuak erosi	• Jostailuen aurrekontuko %10-%20

- Ikaskideari aurkeztu zure proposamena. Eskatu bere iritzia.
- Eman taldeari hitz egindako guztiaren berri gida honi segituz.
  - Zure ikaskideak nolako opariak egitea du aurreikusita? Nori?
  - Zenbat gastatzeko asmoa zuen?
  - Nola uste duzu murriztu dezakeela gastu hori? Zenbatean?
  - Zer iruditu zaizkio zure proposamenak? Zer erabaki du?
- Azalpenak entzun ahala oharrak hartu eta ikaskide ezberdinen ideietan oinarrituz, egizu **oparitan gutxiago gastatzeko dekalogo orokor bat**. Erantsi aholku bakoitzeko azalpen txiki bat.

NOLA GASTATU GUTXIAGO OPARITAN?	
AHOLKUA	AZALPENA
1.	
2.	
3.	
4.	
5.	
6.	
7.	
8.	
9.	
10.	



## 2

Opariekin askotan zera gertatzen da: garrantzi handiagoa du biltzeko erabili dugun paperak, jarritako gogo onak, horren inguruan eratutako giroak... opariak berak baino.

Horregatik, askok, gomendatzen dute ez ibiltzeko luze dendaz denda eta oparia jasoko duen pertsonaren inguruan gehiago pentsatzeko.

Horretan jarri nahi zaitugu orain. Izan ere, ikaskideei eta irakasleari sosik ere kostako ez zaizkizun opari sinbolikoak egiteko proposatuko dizugu.

- Aurreko atazan egin duzu maizenik oparitzen diren gauzen zerrenda. Horietako batzuk hautatzeko unean oso kontuan hartu behar da zeini egingo dizkiozun. Hurrengo taulan idatzi mota bakoitzeko adibideren bat.

OPARI-MOTA	PERTSONALA	ORORENTZAT EGOKIA
JOSTAILUAK		
ARROPA		
APAINGARRIAK		
IKUS-ENTZUNEZKOAK		
ETXEKO TRESNAK		
JAN-EDANAK		
BESTE		

- Idatzi gelako ikasleen izenak papertxo banatan. Binaka jarri. Hartu bi papertxo bikote bakoitzeko. Aukeratu egokitu zaizkizuen pertsonentzako opariak eta zergatiak azaldu.
- Talde osoari jakinarazi zeuen erabakia. Opariaren hartzailak esan dezala oparia gustuko duen, halakorik espero ote zuen...
- Benetako oparirik ezean, postal txiki bat behintzat eskaintzen ahal diogu elkarri. Izan ere, postala ondo hautatu eta testua zainduz gero, oso erregalu polita izan liteke. Banatu berriro ikaskideen izenak; bikote bakoitzeko bi. Hautatu kide horientzako postal egokiak irakasleak ekarritakoen artean. Arrazoitu zeuen hautua.
- Idatzi ikaskideari zuzendutako postalaren testua. Erantsi opari sinboliko bat: poematxo bat, txiste bat, marrazki bat, esaldi berezi bat... Egin lehenbizi zirriborroa eta ikaskideen edota irakaslearen laguntzaz zuzendu, behin betikoa idatzi aurretik.





- Trukatu postalak. Komentatu bikotekiderekin zer iruditu zaizun zeuk jasotakoa.
- Irakurri postala talde osoaren aurrean eta adierazi zer iruditu zaizun. Eskertu oparia dagokionari. Azalpen hau egiteko, honako esaldiez balia zaitezke:
  - Norbaitek postal hau igorri dit. Ez nuen espero niretzat, hain zuzen, postal hau hautatzea; oso tradizionala da eta niri...
  - Bertan testu hau idatzi dit: ...
  - Eskerrak eman nahi dizkiot dagokionari oparitxo honengatik eta, bide batez...


## 3

Denok duzue oparia; baina, inor gogoratu al da irakaslearekin? Berarentzat beste zerbait pentsatuko dugu: "airean idatzitako postal bat" Zer ote den hori? Zuk zer dela uste duzu?

- Taldetan eztabaidatu zertan ote datzan "airean postala idazteko" kontu hori; hona hemen aukera batzuk:
  - Jendeak postalak igortzen ditu irratira eta esatariek irakurri egiten dituzte.
  - Jendeak postalak igortzen ditu irratira eta esatariek deskribatzen dituzte; jendeak, horrekin gidatuta, botoak emango dizkio "politinari".
  - Jendeak nolako postala izatea gustatuko litzaiokeen azaltzen du eta irratikoek ordenadorez diseinatu eta bidali egiten diote.
  - ...
- Entzun irratipasarte bat \*\*. Bertan azaltzen dute zertan den postalaren kontua eta parte hartzeko instrukzio eta sujerentzia dezente ematen dituzte. Jaso beheko taularen lehen zutabea aztertzen dituzten kontuen zerrenda.

AZTERGAIA	INSTRUKZIOAK / IRADOKIZUNAK
Agurrak	
Aurkezpenak	

- Bigarren entzunaldian jaso puntu bakoitzeko ematen dituzten xehetasunak eta argibideak. Alderatu zure oharrak albokoekin eta argitu zalantzak.
- Irratiko esatariek emandako jarraibideak kontuan hartuz, egizue irakasleari zuzendutako postal baterako proposamena taldean. Zalantzak zeuen artean argitu, irakasleak ez baitu zeuen egitasmoaren berri izan behar amaiera arte. Grabatu proposamenak.



- Proposamen guztiak entzun eta bat aukeratu; edo, bestela, ideia ezberdinak aprobetxatuz denon artean beste bat eratu. Grabatu eta irakasleari eman gabon-opari gisa. Aukera baduzue, irratira bidali zeuen proposamena eta beraiek eman diezaiotela azken ukitua (musika...)

\*\* *Goizean behin.* Euskadi Irratia

# ATAZA: KONTSUMOA GABONETAN

Ikusi dugunez, Gabonetakoa garai berezia da harremanak estutzeko eta ingurukoei geure gogo ona erakusteko. Aldi berean, nekez saihets daiteke garai honetan gutxieneko kontsumo-maila bat. Ikusi dugu, hala ere, kontsumoari badugula nolabaiteko hesia jartzea.

Kontua da, nahita edo nahi gabe, izugarriko kontsumo-zurrunbiloa eraten dela urte-sasoi honetan, eta horrek zer pentsatua ematen duela.

Nola ikusten dute hau guztia adituek? Onuragarria ala kaltegarria iruditzen zaie? Jakin dezagun beren ahotik.



1

- Hemen dituzu Gabonak ezaugarritzeko adituek erabiltzen dituzten hainbat kontzeptu. Lot itzazu bikote / hirukotetan eta azaldu horien artean nolako harremanak ikusten dituzun.



- Jarraian tertulia baten lehen atala \*\*\* entzungo duzu. Bertan hiru adituk Gabonetako kontsumoa aztertuko dute. Identifikatu bakoitzak erabiltzen dituen kontzeptuak eta beheko taulan jaso.

HITZ GAKOAK		
Jose Mari Larramendi	Eneko Astigarraga	Juanjo Arrospeide

- Tertulian aurrerago honako ideia aztertuko dute: **“Gabonetako gastuak %20 murriztu daitezke erosketak aldez aurretik eginda; hori jakinda ere, nahiago dugu Gabonetan erosi”**. Komentatu esaldi hau, emandako hitz gakoekin lotuz.



\*\*\* *Lauretan Babel*. Euskadi Irratia

2

Tertulian barrena hiru ikuspegi erabiltzen dira Gabonen gertakaria aztertzeko. Alde batetik, Gabonak gertakari soziala dira; bestetik, dimentsio ekonomiko garrantzitsua dute eta, hirugarrenik, jokabide pertsonalekin ere badute zerikusia.

- Sakondu dezagun hiru puntu horietan *Salako Leihoa* programako tertuliakideen laguntzaz.



- Jarraian dituzu tertulian botako dituzten hainbat ideia. Taldetan eztabaidatu diagramako zein azterbiderekin ikusten dituzuen bereziki lotuta.

1. Gizarteak bultzatzen gaitu kontsumo-molde hauetara
2. Kontsumoa ez da berez ona edo txarra
3. Kontsumo-maila altu bat ez da ezinbestekoa gizartea martxan jarraitzeko
4. Kontsumoa lotuta dago irudi sozialarekin
5. Kontsumoaren ikuspegi berriak eragin du eskaintza espezializatzea
6. Kontsumo-produktu berriak azaldu dira; oporrak, adibidez
7. Irizpide ekonomikoek markatzen dute kontsumo-maila
8. Gakoa da dugun ahalbide ekonomikotik zenbat ematen dugun kontsumoan
9. Marketing-ean egindako inbertsioa nolakoa, kontsumo-maila halakoa
10. Bakoitzaren eronka da norberaren kontsumoa neurtzea eta zuzentzea
11. Kontsumitzaileak informazioa eta hezkuntza behar du
12. Jendea prest dago Gabonetan garestiago ordaintzeko



- Tertuliaren bigarren atala\*\*\*\* entzun ahala, egiaztatu tertuliakideek zeuek aurreikusitako moduan aztertzen dituzten ideia horiek ala bestela. Hori erabakitzeko erreparatu tertuliaren uneari (zertaz ari dira une horretan?) eta ideia horren inguruan egiten dituzten iruzkinei (zerekin lotzen dute ideia hori?).
- Alderatu erantzunak inguruko ikaskideekin. Zenbaitetan gerta liteke batzuek eta besteek ondorio ezberdinak atera izana. Ez litzateke harrigarria izango. Tertulietan maiz ideia batzuk besteekin uztartu edota gainezartzen dira eta, ondorioz, modu ezberdinetara uler ditzakete entzuleek. Bat ez zatoztenean, erabili tertuliaren transkripzioa argitzeko.

\*\*\* *Lauretan Babel*. Euskadi Irratia

## 3

- Tertuliaren momentu jakinetan hiru kontu nagusi utzi dituzte airean galdera moduan edo.
  - Orain lehen baino gehiago kontsumitzen al dugu?
  - Kontsumo-maila altua ona ala txarra da gizartearentzat?
  - Kontsumitzailearen portaera bidera daiteke; zuzendu daiteke? Nola?

Lehenak, jokabide pertsonalaz egiten du galde; bigarrenak, gaiaren dimentsio ekonomikoarekin du zerikusia eta, hirugarrenak, gaiaren inplikazio sozialak hartzen jasotzen ditu.

- Taldetxotan erantzun galdera horietako bati, jarraian dituzuen taulak osatuz. Eman ikastaldeari egin duzuen analisiaren berri; osatu zerrendak ikaskideek emandako ideia berriekin.



Nola bultzatu kontsumoa?	Nola mugatu kontsumoa?

Gertakari soziala

**AZTERBIDEAK**

Jokabide pertsonala		Gertakari ekonomikoa	
Kontsumoa lehen	Kontsumoa orain	onurak	kalteak

- Idatzi taldeka aztertu duzuen azpigiaren inguruko testu labur bat. Nahi baduzue, jarraian dituzuen pasarteak erabili testuei hasiera emateko.



## ATAZA: MERKEALDIEN ZURRUNBILOAN



Gabonetako gastu handien ondoren, urtarrilarekin batera merkealdiak hasten dira. Tentatu egiten gaituzte eta hor goaz guztiok zeinek mauka handiagoa topatuko! Zein zaila den merkealdien zurrunbiloa saihestea!

Horrek baditu arriskuak, ordea: zuhurki jokatzeko ez badugu, diru gehiegi gastatuko dugu eta, okerrera, behar ez ditugun alferrikako gauzez beteko dugu armairua.

Ikus dezagun, bada, zer hartu behar dugun kontuan eta nola jokatu behar dugun urtarrileko aldapari lasai ekiteko.

1

- Adierazi taldekideei ea beheko esaldiek irudikatzen duten, nolabait, merkealdien aurrean zuk zeuk duzun jokabidea.

A

Merkealdiak hasi baino egun batzuk lehenago, dendei bisitalditxo bat egiten diet. Merkealdia hasi orduko, gustatu zaizkidan gauzak oraindik salgai dauden ikustera joaten naiz. Gehienetan, bertan aurkitzen ditut. Lan pixka bat hartu behar da, baina merezi du.

B

Onartu behar dut ez dakidala erosten. Ikaragarri tentatzen naute eskaintzen dituzten pagotxek. Zenbat gauza erosten ditudan, gero behin edo bitan baino ez erabiltzeko! Baina ez dut erremediorik.

C

Gustatzen zait merkealdietan erostea; joko baten modukoa da. Baina, hori bai, gabonetan sobratutako dirua baino ez dut gastatzen. Hor dut muga.

D

Gabonetan seme-alabei merkealdietan erabiltzeko “bonoak” oparitzen dizkiet. Nagusiak dira eta txorakeria izugarria iruditzen zait egun gutxiengatik hainbeste diru alperrik ordaintzea.

E

Gauza jakin-jakinen bila noa. Ez baditut topatzen, ez dut ezer erosten.

F

Nahiago dut behar dudana behar dudanean erosi. Horrekin, bai, aurrezten dut. Azken batean, ez dut edozer erosten merkea delako soilik. Gainera, errazago aurkitzen dut ondo ematen didan jantziren bat eta hobeto hartzen naute dendetan.

NEU(K) ERE BAI

BATZUETAN

INOLA ERE EZ

- Zenbait dendatan ohikoa da ilarak egitea merkealdietan erosteko. Aipatu ezagutzen duzun dendaren baten kasua eta eztabaidatu merezi ote duen ilaran zain egotea horrelakoetan.
- Zerrendatu ilarak saihesteko jendeak erabili ohi dituen amarruak. Azaldu zein den zure jokabidea norbait aurreratu egiten zaizuenean.

TRIKIMAILUA	NEURE JOKABIDEA
Ezagun batekin hizketan jarri eta berarekin gelditu.	



- Ikusi *Mr. Bean* \*\*\*\*\* eta *Dinamita*\*\*\*\*\* umore saioetatik hautatu ditugun bi esketxetako bat eta, ondoren, kontatu zer gertatzen den bertan ikusi ez duen ikaskideren bati. Ikusi ahala azpimarratu hurrengo hitz eta esapideen artean baliagarriak izango zaizkizunak.

Itxurak egin  
-ena egin  
-i aurreratu  
-i muzin egin  
aurrea hartu

azala lodia izan  
mozolo pintoa izan


harrituta  
kezkatuta  
arineketan  
pozarren  
ikaturik  
presaka  
zalantzarik gabe  
haserre

\*\*\*\*\* *Mr Bean*. ETB

\*\*\*\*\* *Tricycle. Dinamita*. ETB

2

- Idatzi merkealdiei buruzko testu "umoretsu" labur bat; gazteentzako aldizkariren batean argitara emateko.



IZAN ZAITEZ SUPER-EROSLE!

- Trukatu idazlanak eta elkarri zuzendu ondoren ormetan eskegi.

3

- Irakurri jarraian duzun testu-pasartea \*\*\*\*\* eta eztabaidatu zein ote diren falta diren lau adjektiboak.

Ondo pentsatu "urtarrileko aldapako" beherapenetan "erori" aurretik. Iritsi dira urtarrileko beherapenak. Hemen dugu aurten ere beherapenen zurrumbiloa, kontsumitzaileak prezio oneko salgaien bila jartzen dituen, benetan behar dituen pentsatu ere egin gabe askotan. Urtarrileko aldapa deitzen dugun horretan gure patrikak kalte handiagorik izan ez dezan, garrantzitsua da \_\_\_\_\_ informatu, ideiak \_\_\_\_\_ eduki eta erosketa \_\_\_\_\_ eta \_\_\_\_\_ ean ez erortzea.

- Azken esaldi horretan erosle zuhurraren funtsezko hiru baldintza aipatzen dira; oso modu orokorrean, ordea. Horiek zehazte aldera, erantzun ondoko galderari ahalik eta gauza gehien zerrendatuz.

ZERI BURUZKO INFORMAZIOA BEHAR DUGU?

ZER IZAN BEHAR DUGU ARGI?

ZER DA EROSKETA ZUHURRA?

\*\*\*\*\* Ondo pentsatu urtarrileko aldapa... *Consumer aldizkaria*, 13 zenb.



- Irakurri testuaren bigarren atala eta hutsuneak bete zerrendan dituzun aditzak erabiliz. Zenbait aditz behin baino gehiagotan erabili beharko dituzu. Baten bat ulertzen ez baduzu, hiztegi-liburura jo eta argitu bere esanahia.

Kontuan izan	Ekidin	Baztertu	
Gogoan izan	Zehaztu	Egiaztatu	Iraun
Kontuz ibili	Saiatu	Eskatu	Iragarri
Behartuta egon	Nahastu	Onartu	Antzeman
Ezinbesteko izan	Fidatu	Galdetu	Eskaini
	Begiratu	Jo	Bete



- Egizu benetan behar dituzun gauzen zerrenda. \_\_\_1\_\_\_ etxeko beharrak (tresneria, tresna elektrikoak.), zeureak eta familiarenak (arropa, oinetakoak, osagarriak.). Behar baino gehiago gastatzea eta laster erabiliko ez dituzun gauzak erostea \_\_\_2\_\_\_ go duzu.
- \_\_\_3\_\_\_ beherapenek ezin dutela hamabost egun baino gutxiago edo bi hilabete baino gehiago \_\_\_4\_\_\_ eta produktuaren prezio normalean %20ko beherapena izan behar dela gutxienez.
- \_\_\_5\_\_\_ presarekin. Beherapenetako lehen egunetako estuasun eta bultzakadek inpultso bidez erostera eraman gaitzake.
- \_\_\_6\_\_\_ zenbat gastatuko duzun gehienez eta saiatu aurrekontua ez gainditzen; bestela \_\_\_7\_\_\_ go duzu poltsikoan.
- Ez \_\_\_8\_\_\_ beherapenak eta merkealdiak. Denda batek salgai kaltetuak, zaharrak edo erreusak \_\_\_9\_\_\_ tzen baditu, merkealdia eskaintzen ari da eta ez beherapenak.
- Denda batean "beherapenak" \_\_\_10\_\_\_ tzen dituen kartela badago, salmenten erdiak izan behar du, gutxienez, beherapena.
- Beherapenetan \_\_\_11\_\_\_ tzen diren produktuek gutxienez hilabetez egon behar dute dendan. Ez \_\_\_12\_\_\_ beherapen garaian erakusleihotako gaiak aldatzen dituzten dendekin.
- \_\_\_13\_\_\_ beheratutako prezioarekin batera aurrekoa ere agertzen den. Beherapenarekin eskaintzen den produktu bakoitzari aurreko prezioa ere jartzera behartuta daude dendak.
- Beherapenetan kalitate berbera prezio apalagoan eskaini behar da. \_\_\_14\_\_\_ itzazu behar diren osasun baldintzak \_\_\_15\_\_\_ tzen ez dituzten produktuak, egoera txarrean daudenak edo segurtasun neurriak betetzen ez dituztenak.
- - \_\_\_16\_\_\_ etiketa zuzena dela eta gatzelaniaz (edo estatuko beste hizkuntza ofizialen batean) irakur daitekeela. Jantzien etiketak garbitze eta lixatzeko jarraibideak izan behar ditu eta ehunaren materialen eta enpresa fabrikatzailearen berri eman behar du (manufaktura zein herrialdetan egin den barne dela).
- Etxeko tresna elektriko bat erosten baduzu, \_\_\_17\_\_\_ ezazu tresna horrek prezio normalean duen garantiako epe berbera izatea. \_\_\_18\_\_\_ dokumentazio guztia zigilatua eta arauen barruan dagoela.
- Ordaindu aurretik, \_\_\_19\_\_\_ salgaia itzultzerik onartzen duten. Saltzaileak \_\_\_20\_\_\_ urteko edozein garaitan salgai akastunak aldatzera, baina egoera onean daudenekin ez da derrigorrezkoa.
- \_\_\_21\_\_\_ kreditu txartelarekin ordaintzerik dagoen. Urte guztian zehar txartela onartzen duten dendak behartuta daude beherapenetan ere \_\_\_22\_\_\_ tzeraz, prezioari ezer erantsi gabe gainera.
- \_\_\_23\_\_\_ ezazu ordainagiria edo erosketatxartela; ezinbesteko dira salgaia aldatu edo itzultzeko.
- Beherapenetan ere, beste edozein unetako eskubide berberak ditugu kontsumitzaileok. Dendaren batek kontsumitzaile gisa dituzun eskubideak ez dituela errespetatu uste baduzu, eska ezazu erreklamazio-orria eta saia zaitez arazoa onean konpontzen. Kontsumitzailearen Informaziorako Udal Bulegora, Autonomia Erkidegoko Kontsumo Zerbitzura nahiz edozein kontsumitzaile elkartetara ere \_\_\_24\_\_\_ dezakezu. (*Consumer elektronikoa* 13, 2000ko urtarrila).

## 4

- Bete ezazu duzun taula, artikuluan oinarrituta. Bertan zerrendatu merkealdien **arriskuak** eta horiei **aurre egiteko** hartu beharreko **neurriak**.

ARRISKUAK	HARTU BEHARREKO NEURRIAK
Behar ez ditugun gauzak erosi	Benetan behar duguna zerrenda batean jaso

- Idatzi gutun bat EROSKIren komunikazio-arduradunaren izenean CONSUM txartela duten bezeroei.
  - Gutuna laburra izan dadila; sarrera eta amaieraz gain, gehienez 3-4 paragrafokoa.
  - Bertan ohartarazi merkealdietan dauden arriskuez eta eman oinarritzko aholku batzuk.
  - Jakinarazi badutela aholku zerrenda osatua *Consumer elektronikoaren* urtarreiko alean.
  - Adierazi, halaber, badutela zalantzak argitzea aldizkariko kontsulta-zerbitzuan.



## ATAZA: KONTSUMO-ADIKZIOA



Gabonetan edota merkealdietan denok gastatzen dugu, gutxi-asko, nahi edo behar baino diru gehiago. Zenbaiti, ordea, erostea eta dirua gastatzea premiazko egiten zaie; ezin diote eutsi gauzak erosteko grinari. Horiek kontsumo-adiktoak dira.

Txarrena da, gaur egun, denok jo gaitzakeela gaixotasun honek. Izan ere, gure gizartean nagusi diren bizimodu eta baloreek horretara bultzatzen gaituzte.

Ezagut dezagun zertan den gaixotasun berri hau eta ikus dezagun zer egin daitekeen bere aurka, gu geu zulora jausteko zorian egon gaitzke eta!

1

- Kontsumo-adikzioa ez da egun batetik bestera azaltzen. Adituek hiru urrats bereizten dituzte gaixotasunaren bilakaeran. Jarraian dituzu fase ezberdinen ezaugarriak nahasirik. Jarri itzazu dagozkien laukietan.
  - A) Behar ez dituzten gauzak erosten dituzte.
  - B) Kredituei esker bizi behar izaten dute.
  - C) Ingurukoak bultzatzen dituzte erostera.
  - D) Kreditu-txartela erabiltzen dute benetako gastuen aurrean ez-ikusiarrena egiteko.
  - E) Aisialdiaren parte handi bat dendetan, merkataritza-guneetan, katalogoak begiratzen... ematen dute.
  - F) Ez dira gustura gelditzen erositakoarekin.
  - G) Gastuen gaineko kontrola galtzen dute.
  - H) Ez dute apenas erosten baina dendak begiratzen denbora asko ematen dute.
  - I) Erositako gauzak apenas erabiltzen dituzte ezertarako; edozein txoko edota armairutan gordeta uzten dituzte.

1. fasea

2. fasea

3. fasea

- Irakurri gaixotasunaren hiru faseak deskribatzen dituzten testuak \*\*\*\*\* eta erabaki bakoitzari zein izenburu jarri. Eztabaidatu zein ote den faseen hurrenkera. Alderatu zeuen proposamenak eta, amaieran, eskatu erantzuna irakasleari.

## IZENBURUAK

## KONTSUMOADIKTOA

## KREDITUADIKTOA

## EROSKETADIKTOA

\_\_\_\_\_ Zaletasun hau duten pertsonak behin eta berriro sentitzen dute erosketak egitera joan beharra. Azkenean, bizitzaren ardatz nagusi dute hori eta beren aisialdiko jardun ia bakarra bihurtzen da, beste edozein egiteko baztertuta. Hala ere, inoiz gutxitan erosten dute ezer. Erakusleihoei begira jarri eta dendetan barrena ibili besterik ez dute buruan; izan ere, maiz ingurukoak bultzatu nahi izaten dituzte dena delakoa eroatera, beraiek erosi gabe.

\_\_\_\_\_ Kontsumozale dei genezakeenak erosi, gauza berriak eskuratzeko premia larria du, gehien beharrik ez badu ere. Produktu erosi berriak, bestalde, lortu orduko galtzen du zuen erakargarritasuna. Horrela, bada, kontsumoaren menpe bizi dena, erosi eta erosi baina inoiz gogobete gabe, ezin da sorgin gurpil zoro horretatik irten.

\_\_\_\_\_ Aurreko bi mendetasunen ondorioz, pertsonak etengabe gastatu beharra du, bere gastu-ahalmena luze gañdituta ere, eta horrek kredituen menpe bizitzera eramaten du, gero eta kreditu handiago eta epe luzeragokoen menpe bizitzera, hain zuzen. Egoera horretara iritsita, guztiz ezinezkoa egiten da dirua kontrolatzea edota gastua neurtzea. Kredituzale petoak txartela gastu erreala ezkatatzeko erabiltzen du eta azkenean ekonomikoki itota aurkitzen du bere burua.



\*\*\*\*\* Siegrist, E. Cómo reconocer a un adicto al consumo *QUO aldizkaria*, 86. zenb.

2

- Gero irakurriko duzuen entrebista batean aditu bati jarraian dituzuen bi galderak egin zizkioten. Eztabaidatu zer erantzun ote zuen.

**A GALDERA:** Zergatik sortu ote da kontsumo-adikzioa?

**B GALDERA:** Gizarteko zenbait sektorek arrisku handiagoa ote dute?

- Irakurri adituaren erantzunak. Azaldu talde osoari nolako aldeak dauden zeuen eta adituaren erantzunen artean.

Gizartea bera da patologia honen sortzailea. Ez dago menpekotasunik gabeko kontsumo gizarterik, gizarte mota horrek behar berriak sortzen dituelako, jendea etengabe gauza berriak probatzera bultzatzen duelako. Ez da egia eskaintza eskariaren beharrak asetzera datorrela: alderantziz gertatzen da. Inork ez zuen Coca-Cola edateko beharrik izan asmatu zen arte. Arazo larriak agertu, ordea, kontsumitu behar horrek duguna baino gehiago gastatzera bultzatzen gaituenean agertzen dira.

Ez, bakoitza bere arloan da kontsumozale. Gizonak, adibidez, kirol-gai, auto edo motorren erosketan nagusitzen dira. Emakumeek, berriz, beste inork baino arropa eta garbikari gehiago erosten dute, eta turismo nahiz botikatan gehien gastatzen dutenak zaharrak dira. Ildo horretan, aipamen berezi bat egin behar da umeei buruz: gizartea haur kontsumozalea sortzen ari da. Gazteenak mauka ederra dira publizitatearentzat; izan ere, giza talde dinamikoena eta konbentzitzen errazena dela jakinda, etengabe eskaintzen zaizkie gauza berriak.



- Irakurri hurrengo pasarteak. Bertan kontsumo-adikzioaren zenbait iturburu aztertzen dira. Jatorrizko testuan hasieran letra ilunez idatzita zeuden hitzak ezabatu egin ditugu. Egin proposamenak hutsuneak betetzeko eta arrazoitu.

\_\_\_\_\_, frustrazioa edota arazo psikologikoak izan daitezke etengabe kontsumitu behar horren atzean ezkutatzen direnak; kontsumoa horiek sortutako hutsunea betetzera dator. Zenbait psikologoren arabera, umetan, Olentzerotan-eta, opariak jasotzen zireneko ilusio hura berreskuratzeko ahalegina dago atzean.

\_\_\_\_\_. Propagandak gure ahalbideen gainetik bizitzera bultza gaitzake, zoriotsu izateko eskuratu behar ditugun produktu berriak erakutsiz. Gainera, salmenta-azalera handiek direnak eta ez direnak erabiltzen dituzte bezeroak aurrez pentsatutakoa baino gehiago xahutzera limurtzeko, hala nola, gurditxoen tamaina handia, eskaintza bereziak, salgaien kokalekua apaletan, oparia duten gaiak.

\_\_\_\_\_. Ingurukoaren aurrean gure izen ona, itzala erakutsiko duten ikurren faltan, gizarte honetan gero eta hedatuago dago pertsonak benetan bereizten dituen beren ondasunak direlako ideia. Horrela, erositako produktuak geure burua nabarmentzeko bide bakarra bihurtu dira. Kontsumozaletasunaren menpeko gehienak erdi mailakoak izaten dira J. Garces-en arabera (Kontsumoan espezializatutako psikologoa eta Aragoiko Kontsumitzaileen Elkartearen kidea): "Goi mailako pertsonak ez dute kontsumoa behar beren estatusa indartzeko: dirua xahutzen badute, badutelako da, ez beste edozergatik. Behe mailakoek, berriz, aurrekontu murriztarekin moldatu behar izaten dute, eta zorrozki moldatu ere".

- Eztabaidatu jatorrizko testuan hiru pasarte hauek zein ordenatan zeuden hurrenkeratuak. Alderatu zeuen hipotesia eta orijinala.



- Osatu hurrengo testua pasarteei jarraipena emanaz. Alderatu zeuen proposamenak jatorrizkoekin eta komentatu ezberdintasunak.

1. Erostera irten baino lehen, egin ezazu...

1. Ez egin janari-erosketak...

3. Hipermerkatu batean ikusten baduzu zerrendatik aparteko zerbait eta interesgarria iruditzen bazaizu...

4. Noizbehinka gutziaren bat erostea ez da txarra, baina...

1. Askotan alferrikako gauzak erosten ditugu...

6. Ordaintzera joan baino lehen...

7. Ez zaitetz lotsatu...

9. Kredituarekiko mendetasunari aurre egiteko, gomendagarria da...

8. Umeak zerbait erostarazi nahi badizu opari bat dakarrelako...

10. Gastuari eusteko arazoak badituzu...



4

- Simulatu entrebista bat. Batek, adituarena egingo du eta bestea elkarrizketatzailea izango da.
  - Hasi aurretik, elkarrizketatzaileak presta dezala galdetegi bat; elkarrizketatuak birpasa ditzala hartutako oharrak.
  - Elkarrizketa grabatu. Beharrezkoa denean, aldatu galdetegian aurreikusitako bidea.
  - Ondoren, entzun eta aztertu jarraian dituzuen kontuok.

Argi utzi dute arazoa zertan den? Ondo deskribatu dituzte gaixotasunaren faseak?

Aztertu dituzte arazoaren iturburuak, ondorioak eta aukerako irtenbideak?

Aipatutako arazoei aurre egiteko moduak azaldu al dituzte?

Elkarrizketatzaileak egin dio nolabaiteko sarrera solasari?

Ondo itxi du saioa?

Zertan hobetu daiteke?

## ATAZA: HAINBESTE BEHAR OTE DUGU?



Ikusi dugun bezala jokabide kontsumistak arazo ugari eragiten ditu; batzuk oso larriak, gainera. Bestalde, gehienetan, kontsumoaren parte handi bat hutsala da; alegia, ez digu inolako satisfazio berezirik ematen.

Bitartean, badira milioika pertsona munduan, eta horietako asko guregandik oso gertu, bizitzeko beharrezkoak diren gutxienekoak ere eskuratzeko lanak dituztenak. Zertan ari gara, bada? Hainbeste gauza behar ditugu zoriotsu izateko?

Horra hor, azken atazan jorratuko dugun gaia.

1

- Zerrendatu taulan, zehazten diren esparruetan, ezohiko gastua eragiten duten kontsumo-produkturik behinenak. Bereiztu ezinbestekoak eta aukerakoak.

ETXEKO TRESNAK	SEME-ALABAK	KULTURGAIK	OSASUNA
	Jantziak	Eskolako liburuak	
	Txiki-Park Bideoak	Bildumak	

- Orain ikusiko duzu iragarkia baten hainbat irudi ahotsik gabe (4. bideo-pasartea \*\*\*\*\*). Esan irudietako bakoitza kontsumoaren zein arlori egiten dion men. Eztabaidatu zein ote den iragarkiaren mezua. Asmatu lelo bat.

## IRAGARKIAREN GAIA:

## IRAGARKIAREN LELOA

- Ikusi iragarkia \*\*\*\*\* osorik. Jaso leloa eta egiaztatu iragarkiaren gaia zein den asmatu duzuenentz.
- Zer iruditu zaizue iragarkia? Nolako sentsazioak edota hausnarketak eragin dizkizue? Egiten duen kritika zilegi iruditzen zaizue?


\*\*\*\*\* GKE iragarkia. ETB

\*\*\*\*\* GKE iragarkia. ETB



## 2

- Goiko taulan jaso dituzuen zerrendetan oinarrituz, egizue proposamen-sorta bat kontsumo-eredu sostengagarri eta bidezkoago baten aldera jotzeko.
- Proposamenak azaldu talde osoari eta eztabaidatu bakoitzaren bideragarritasunaz.
- Egizue esku-orri bat eta jendearen artean banatu, gaiaren inguruan sentsibilizatzeko. Testua idatzi eta pentsatu zein euskarri erabiliko zenuketen (diptikoa, orritxoa, triptikoa...), nola banatuko zenuketen testua, nolako irudiak txertatuko zenituzketen... Aurkeztu egitasmoa taldekideei.
- Denen artean bat hautatu.



## 1. AUTOEBALUAZIO-ORRIA

1. Ikastunitate honetan Gabonen eta merkealdien inguruan jardun dugu. Laburbildu erabili ditugun testuetan eta egin ditugun lanetan jaso diren aldarrikapen eta gomendio nagusiak:

- Ondo pentsatu erosi baino lehen. Askotan damutu behar izaten dugu gaizki edota beharrik gabe erositakoaz.
- 
- 
- 
- 
- 

2. Bestealde, aholkuak emateko modu ezberdinak ikusi ditugu. Egin dezagun azaldu diren irizpideen bilduma. Zer iruditzen “aholkuak emateko dekalogo” egitea? Geuk bi irizpide jarri ditugu; erantsi beste zortzi jarraian.

1. Eman aholkuaren muina oso modu laburrean. Garbi ikus dadila zer den zehazki gomendatzen duzuna.
2. Jarraian erantsi argigarria izan daitekeen informazioa. Askotan arrazoitu egin beharko duzu zergatik ematen duzun, hain zuzen, gomendio edota aholku hori.
- 3.
- 4.
- 5.
- 6.
- 7.
- 8.
- 9.
- 10.

3. Ikastunitate honetan nola ikusi duzu zeure burua? Taula bete eta komentatu zeure inpresioak taldearekin.

	GAIZKI	ERDIPURDI	ONGI	TREBE
Kontsumoaren inguruko aldizkarietako artikuluak ulertzeko garaian				
Irratiko tertulia / elkarrizketa batean eztabaidagai nagusiak identifikatzekoan				
Pasarte umoretsuak kontatzen				
Interes orokorreko gaien inguruko eztabaidan				
Azalpen artikuluen pasarteak idazterakoan				
Aholkuak gai ezberdinen inguruan ematean				

4. Zerrendatu unitatean zehar izan dituzun zailtasunak. Gogora ekarri nolako laguntza izan duzun horiek gainditzeko. Esan zer landu beharko zenukeen sakonkiago.

## ATAZA: KONTSUMOA GABONETAN

## 1. GABONAK MUNDUAN



1

- Zerrendatu Gabonak ospatzeko geure inguruan ditugun ohiturak.

OPARIAK	JANARIAK	DEKORAZIOA	KULTUR EKITALDI	OSPAKIZUNAK

- Irakurri irakasleak emango dizun fitxa \*\*\*\*\*. Bertan munduko beste lurralde batean Gabonak nola ospatzen dituzten azaltzen da. Osatu beheko taula testuan aurkituko duzun eta zeuk izan dezakezun informazioarekin.

## A TALDEA

	OPARIAK	JANARIAK	DEKORAZIOA	KULTUR EKITALDIAK	OSPAKIZUNAK
Norvegia					
Australia					
Italia					
Alemania					
Errusia					

## B TALDEA

	OPARIAK	JANARIAK	DEKORAZIOA	KULTUR EKITALDIAK	OSPAKIZUNAK
Mexiko					
Brasil					
Japonia					
India					
Beste					

\*\*\*\*\* Gabonak munduko leku batzuetan. *Consumer aldizkaria*, 12. zenb.

# 4. Material osagarriak

## C

- Taldekideei eman aurkitu duzun informazioaren berri. Azalpena entzun ahala, taula osa dezatela. Argitu zalantzak.
- Orain irratsaio baten simulazioa egingo dugu. Taldeak egingo dituzue eta bat esatariaren lanaz arduratuko da. Besteak herrialde ezberdinetan dauden korrespontsalak izango dira eta irratsaio honetan azalduko dute nola ospatzen diren Gabonak.
- Talde batekoek irratsaioa simulatzen duten bitartean, besteak bete dezatela goiko taula falta duten informazioa jasoz.
- Grabazioak berriro entzun eta alderatu ikaskideen azalpenak. Erreparatu kontu hauei.

- ☞ Zein hurrenkeratan eman dute informazioa?
- ☞ Datu garrantzitsu guztiak eman dituzte?
- ☞ Ulergaitzak diren hitzak / ohiturak ulertarazteko ahalegin nahikoa egin dute?
- ☞ Azalpenaren atal ezberdinak ondo josi dituzte?
- ☞ Arazoak izan dituzte azalpena modu jarraian egiteko?



## 2

- Zerrendatu aipatu direnen artean geure ohituren antza dutenak. Jaso, halaber, gustatu zaizkizun kanpoko beste ohitura batzuk.

ANTZEKO OHITURAK	GUSTATU ZAIZKIDANAK

- Jarraian ikusiko duzue kanpotik geurera ekarri dugun ohitura baten inguruko bideo-pasartea \*\*\*\*\*. Lehen aldian ahotsik gabe ikusiko duzu. Erabaki zein ospakizun den eta, irudietan oinarrituz, egizu bertan agertzen diren kontsumo-gaien zerrenda.

OSPAKIZUNA:

KONTSUMO-GAIK:

- Bideoa\*\*\*\*\* ahots eta guzti ikusi; egiaztatu asmatu duzun eta osatu kontsumo-gaien zerrenda.
- Zer iruditzen zaizue kanpoko ohiturak ekartzea geurera? Eztatidatu eta ondorio nagusiak esaldi/pasarte labur batean jaso. Gelako proposamenak horman itsatsi eta botoetara jo erabakitzeko zein den onena.



\*\*\*\*\* *Sorginen laratza*. ETB  
 \*\*\*\*\* *Sorginen laratza*. ETB

3

- Geure geureak diren zenbait ospakizun ere aldatu egin dira kanpokoan eraginez. Horixe gertatu da, hain zuzen, Olentzeroren festarekin. Jo ezazu [www.jalgi.com](http://www.jalgi.com) helbide elektronikora; sartu OLENTZEROREn orrialde elektronikoa eta bertan aurkituko duzun informazioarekin bete honako taula:

LEHENGO OSPAKIZUNA	ORAINGO OSPAKIZUNA
Enbor bat erretzen zen sutan	Olentzerori gutziak uzten zaizkio jateko

- Taldetxotan jarri eta komentatu Olentzeroren festa berritua gustuko duzuenentz. Berrikusi kanpotik ekarritako ohiturei buruz lehenetsi duzun iritzia eta alderatu Olentzeroren festari buruz pentsatzen duzuenarekin. Bat al datoz bi balorazioak? Ondorioak atera.



## ATAZA: MERKEALDIEN ZURRUNBILOAN 2. LEGE-AHOLKULARITZA SAREAN



1

Kontsumoaren zurrumbiloen murgilduta, ez da hain arraroa izaten gaizki erositako edota egoera onean ez dagoen zerbait itzuli beharra.

Beti, ordea, ez dute nahi bezala erantzuten. Zein dira gure eskubideak? Zer da jakin behar duguna erreklamatzeko?



- Definitu jarraian dauden hitzak. Gelako proposamen guztien artean onenak hautatu eta arbelean idatzi.

MERKEALDIA

SALDOA

LIKIDAZIOA

- Entzun Begoña Muruagak gaiari buruz egiten duen azalpena.\*\*\*\*\*

☞ Jaso merkealdiei buruz legeak dioenaren inguruko xehetasun jakingarriak.

PREZIOAK

AKATSAK

PRODUKTUAK

ETIKETAK

TXARTELAK

BESTE

☞ Jaso EROSLE ONA definitzeko erabiltzen dituen ezaugarriak.

EROSLE ONA

- Beste gauzen artean eman ditu zenbait azalpen MERKEALDIA / SALDOA / LIKIDAZIOA kontzeptuen artean dauden ezberdintasunei buruz. Alderatu hasieran egin dituzuen definizioekin. Beharrezko ikusten baduzue, definizioak berregin, Begoña Muruagak emandako informazioa erabiliz.

\*\*\*\*\* ETB

2




Kontsumoak gizartean duen garrantziaren ondorioz sortutako auzi, arazo eta kezka direla eta, azken urteotan ugartu dira gai honen inguruko argitalpenak, elkarteak, erakundeak...

Besteak beste, Eroski taldea aspalditxo hasi zen argitaratzen *Consumer aldizkaria*; aldizkari hau Interneten eskaintzen dute [www.consumer.es](http://www.consumer.es) helbidean.

- Zabaldu *Consumer elektronikoa*ren azkeneko alea. Ikusiko duzue sail ezberdinak dituela. Taldetxoetan aztertu sail bakoitzean nolako informazioa eta artikulua jasotzen diren. Taldekideei jakinarazi.
- Hautatu sail bat. Aurkibidean kontsultatu sail horretan zein gai jorratu diren aldizkariaren ale ezberdinetan. Nahi izanez gero, ale zaharrak zabaldu eta xehetasun gehiagoren bila jo.
- Eman taldekideei aurkitu duzuenaren berri. Zehaztu zertan den saila, nolako gaiak jorratzen diren bertan, zein den material horrekin egin nahi den ekarpena, zer iruditu zaizuen deigarrien...

Aldizkari honetan beste gauza interesgarri askoren artean aurkituko dugu lege aholkularitza eskaintzen duen sail bat. Irakurleek beren zalantzak igortzen dituzte aldizkarira eta bertako lege-aholkulariek erantzun labur bat ematen diete.

- Hemen daude testuan \*\*\*\*\* azalduko diren hainbat hitz. Ezagutzen ez dituzunen esanahiak argitu hiztegiaren bidez. Ondoren, eztabaidatu zein ote den kontsultaren gaia.



\*\*\*\*\* Lege aholkularitza. *Consumer aldizkaria*, 12. zenb.

- Irakurri testua behin eta ondoren eztabaidatu zer esan nahi ote duten zehazki honako esaldiok, testu horren baitan:

Nola jokatu

Kontu mota honetan titularretako edozeinek erabil dezake dirua, bere sinadurarekin, beste titularren baimenik gabe. Hala ere, zorpekoa eragin duten karguak titularretako batek eragin dituenez, ezingo lirateke beste titularrak zorra bere gain hartzera behartu. Gorenaren aburuz (1991ko ekainaren 14ko epaia), onartezina da kontu batean “bereizi gabea eta solidarioa izan arren” titular batek eragindako zorrak beste bati ordainaraztea eta horixe da banketxeak egin nahi duena. Esandakoagatik, zuzenbidearen arabera egokiagoa litzateke banketxeak zorraren kopurua gastatu zuenari bakarrik eskatzea, huraxe baita zorraren erantzule.

Edozein modutan ere, bada besterik uste duenik ere: honelako kasuetan titular guztiak solidario direla dioenik, alegia, Lurralde Auzitegietan ere irizpidea ez da bateratua eta zorpekoa eragin ez duten titularren kontrako demandak ontzat eman dituzten epaiak ere badira.

Besterik litzateke, adibidez, banketxeak zorra ordaintzea exijitzen dion pertsona kontuaren titular bakarra izan eta gastua egin duena pertsona baimendua denean. kasu horretan, banketxearen aurrean titularra da zorpekoaren erantzule. Horregatik, abokatu batengana jotzea komeni da banketxearen aurrean bitartekari izan dadin, kontratuaren baldintzak, zorra ordaintzea eskatuz banketxeak egindako jakinarazpenak eta, orokorrean, kasu bakoitzeko inguruabar partikularrei begiratzuz.

**KONSUMER** Digitaleko sail honetan, gure lege-aholkularitzaren iritziz komenigarrien den aukera iradokitzen dugu. Gogoan izan orientabidea baino ez dela. Azalduiguzu zure arazoa gutun batean. Egindako kontsultei orrialde hauen bidez bakarrik erantzuten diegu.

1. “Zorpekoa eragin duten karguak titularretako batek eragin dituenez, ezingo lirateke beste titularrak zorra bere gain hartzera behartu”.
2. “Zorpekoa eragin ez duten titularren kontrako demandak ontzat eman dituzten epaiak ere badira”.
3. “Besterik litzateke, adibidez, banketxeak zorra ordaintzea exijitzen dion pertsona kontuaren titular bakarra izan eta gastua egin duena pertsona baimendua denean”.

- Eztabaidatu zein izan den erantzunari zegokion galdera. Zer geratu ote da? Hori erabakitzeko gida zaitzte, kontsulta-gutunean azaltzen diren hiru esaldi-zati hauez.

“Kontu korrontea ireki”  
 “350.000 pezetako zorra nuela jakinarazi zidaten”  
 “Ez ditu zorrak ordaintzen”

- Irakurri galdera eta egiaztatu egindako hipotesiak zuzenak zirenentz.





# OHARRAK

A large rectangular area with a light beige background, containing 25 horizontal rows of blue dotted lines for writing.

# OHARRAK

A series of 25 horizontal dotted lines for writing, spaced evenly down the page.

# OHARRAK

A large yellow rectangular area containing 20 horizontal dotted lines for writing. The lines are evenly spaced and extend across the width of the page.

# HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Erakunde Autonomiaduna  
Organismo autónomo del



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

ISBN 84-86968-48-8



9 788486 968489